

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**248/2022 Foru Agindua, apirilaren 29koa, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Onestea energia produktu jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobarien itzulketa eskatzeko inprimaki elektronikoa**

Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak aparteko eta aldi baterako hobari bat arautu du petrolio jatorriko energia produktu jakin batzuen preziorako.

Errege lege dekretu horren arabera, hobariaren kudeaketan laguntzaile izango dira erregaiak eta karburanteak txikizka hornitzeko instalazioen ustiapen eskubideen titulartasuna dutenak, bai eta hobariaren xede diren produktuen azken kontsumitzaileei zuzeneko salmentak egiten dizkieten enpresak ere. Horretarako, publikoarentzako salmenta prezioaren gaineko deskontu bat egin beharko dute, zergak barne, aipatutako lege dekretuan adierazitako baldintzetan egiten den hornidura bakoitzean. Deskontu hori ezarritako hobariaren zenbatekoaren baliokidea izango da.

Errege lege dekretu horrek, halaber, ezartzen duenez, hobariaren kudeaketan laguntzaile direnek egin diren hobariak itzultzeko eskatu ahal izango dute, eta, era berean, 2022ko apirilaren 15a baino lehen, konturako aurrerakin bat eskatu ahal izango dute. Halaber, ezartzen da hobarien itzulketak eta horien konturako aurrerakinak ez direla enbargatuko edo konpentsatuko zerga zorrak azkentzeko bide gisa.

Lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren apirilaren 1eko 215/2022 Foru Aginduaren bidez, onetsi zen energia produktu jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko inprimakia.

Aipatutako Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua ezartzen duenez, kolaboratzaileak, 2022ko maiatzeko, ekaineko eta uztaileko lehen 15 egun naturalen barruan, aurreko hilean egindako hobariak itzultzeko eskaera aurkeztu beharko dio administrazio eskudunari, eta horren zenbatekoa erreferentziako aldi azken kontsumitzaileei emandako litro edo kilogramo bolumenari deskontua aplikatzearen ondoriozkoa izango da.

Aurrekoaren arabera, foru agindu honen bidez onesten da aurreko hilean egindako hobarien itzulketa eskatzeko inprimaki elektronikoa, zeina, aipatutako 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Arabako Foru Aldundiari baitagokio.

Ildo horretan, Errege Lege Dekretu horren 17. artikulua arabera, itzulketa eskaerak Arabako Foru Aldundian aurkeztu behar dira hobariaren xede diren produktuen hornidurak Arabako Lurralde Historikoan egin direnean.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau:

#### XEDATZEN DUT

Bat. Foru aginduaren xedea.

Foru agindu honen xedea da inprimaki elektronikoa onartzea, martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren I. tituluko VI. kapituluan araututako produktu energetiko eta gehigarri jakin batzuen publikoarentzako salmenta prezioan aparteko eta aldi baterako hobariak itzul ditzaten eskatzeko hobari horren kudeaketan laguntzaileek. Errege Lege Dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartu ziren Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan.

Bi. Hobariaren kudeaketarako laguntzaileak.

Foru agindu honen ondorioetarako, aurreko Bat paragrafoan aipatutako hobariaren kudeaketarako laguntzailetzat hartuko dira erregaiak txikizka hornitzeko instalazioen ustiapen eskubi-deen titulartasuna dutenak, bai eta hobariaren xede diren produktuen azken kontsumitzaileei zuzeneko salmentak egiten dizkieten enpresak ere, produktu horien hornidura Arabako Lurralde Historikoan egiten denean.

Hiru. Itzulketa eskaera.

1. Aurreko Bi apartatuan aipatzen diren hobariaren kudeaketarako laguntzaileek 2022ko maiatzeko, ekaineko eta uztailako lehen 15 egun naturalen barruan, aurreko hilean egindako hobariak itzultzeko eskaerak aurkeztu beharko dituzte hilero, Ukrainako gerrararen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua 2. apartatuan aipatzen dena, alegia.

2. Hobariaren kudeaketarako laguntzaileek aurreko 1. apartatuan aipatzen den eskaera egin beharko dute. Horretarako, foru agindu honen bidez onesten den inprimaki elektronikoa, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri jarriko dena, bete eta bidali beharko dute.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko maiatzaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Gasteiz, 2022ko apirilaren 29a

*Lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

*Ogasun zuzendaria*  
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	<b>Produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren gaineko hobaria</b> ITZULKETA ESKAERA
--	--

Ogasun, Finantza  
eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda,  
Finanzas y Presupuestos

<b>1 IDENTIFIKAZIOA</b>	
IFZ	Deiturak eta izena, edo sozietate izena

<b>2 EPEALDIA</b>	
Ekitaldia	Epealdia

<b>3 HARREMANETARAKO DATUAK</b>	
<p>Kudeaketa laguntzailearekin harremanetan jartzeko datuak; Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak hari zuzenduko dizkio prezioaren hobaria kudeatzeko beharrezkoak izan daitezkeen informazio errekerimenduak, martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua 5. paragrafoan ezarritakoaren arabera.</p> <p>Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira. Telefono mugikorren zenbaki bat eta posta elektronikoen helbide bat eman beharko dituzte, kortesiazko abisua jasotzeko erakunde publiko horren jakinarazpen bat zuen eskura jartzen denean. Inprimakian adierazitako bi IFZetako edozeini lotutako ziurtagiri elektronikoko batekin sartu ahal izango da egindako jakinarazpenetara.</p>	
Harremanetarako pertsona	Harremanetarako IFZ
Telefonoa	Helbide elektronikoa

<b>4 HOBARI MOTA</b>	
Eskabide honetan zehaztutako produktu energetikoaren litro edo kg-ko 20 zentimo itzultzeko eskatzen dut <input type="checkbox"/>	
Eskabide honetan zehaztutako eta martxoaren 29ko 6/2022 Legegintzako Errege Dekretuaren 21. artikuluan araututako zergaz kanpoko ondare prestazio publikoaren mendeko operadoreei erositako litro edo kg bakoitzeko 15 zentimo itzultzeko eskatzen dut <input type="checkbox"/>	

<b>5 PRODUKTUAK ITZULTZEKO ESKAERA</b>	
Produktua	Kopurua
Gasolina (G95E5, G95E10, G95E5+, G98E5 eta G98E10).	litro
Automobilgintzarako ohiko gasolioa edo «A gasolioa» (GOA) eta automobilgintzarako ezaugarri hobetuko gasolioa edo «A+ gasolioa» (GOA+)	litro
B gasolioa (GOB)	litro
Itsas erabilerarako gasolioa (MGO)	litro
GLP (Ibilgailuen propultsiorako petrolio gas likidotuak)	litro
GNC (Ibilgailuen propultsiorako gas natural konprimitua)	kilogramo
GNL (Ibilgailuen propultsiorako gas natural likidotua)	kilogramo
Bioetanola	litro
Biodiesel	litro
Gasolinaren eta bioetanolaren arteko edo gasolioaren eta biodieselaren arteko nahasteak, etiketa espezifiko behar dutenak	litro
AdBlue	litro

<b>6 HELBIDERATZEA</b>	
Banketxea	
Kontu zenbakia – IBAN	

Baimena ematen dut nire datuak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari lagatzeko, erakunde publiko horrek lankidetzan jardungo baitu Zerga Administrazio eskudunarekin zenbait energia produkturen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria kudeatzen.

RE\_ZZ/134